NERE ETCHEA, EDO LABORARIA

Ikhusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean
etche ttikitto aitzin churi bat—
—lau haitz handiren artean,
ithurritto bat aldean,
chakur churi bat athean?
Han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua
maite dut nik sor-lekhua
aiten-autek hautatua,
Etchetik kampo zait iduritzen—
—nonbait naizela galdua,
nola han bainaiz sortua,
han dut utziko mundua
galtzen ez badut zentzua.

Ez da lurrean gizonik
Printzerik ez erregerik
ni baino hobeki denik;
Badut andra, badut semea,—
—badut alaba ere nik,
osasun ona batetik
ontasun aski bertzetik,
zer nahiko dut bertzerik?

Goizean hasiz lanean
arrasa heldu denean
nagusi naiz mahainean;
Giristino bat ona dut hartu—
—nik emaztea hartzean,
ez du mehe egunean
sartuko uste gabean
chingar-hechur bat eltzean.

Etchean ditut nereak
akhilo, haitzur, goldeak,
uztarri eta hedeak;
Jazko bihiaz ditut oraino—
—zoko guziak betheak,
nola iragen urtheak
ematen badu bertzeak
ez gaitu hilen goseak.

Landako hiru behiak
esnez hanpatu dithiak.
aratze eta ergiak,
bi idi handi kopetazuri—
—bizkar beltz, adar handiak,
zikiro, bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak,
nereak dire guziak.

Ez degu behar lurrean
aise bizirik etchean,
utzi laguna gabean;
yende-beharrek ez dute yotzen—
—gure etcheko athean,
non ez duten mahainean,
othuntz-ordua denean,
lekhua gure aldean.

Piarres nere semea,
nahiz oraino gaztea,
da mutiko bat ernea;
goizean goizik bazken erdira —
—badarama arthaldea;
baitu nere egitea,
segituz nere bidea
ez du galduko etchea.

Nere alaba Kattalin
bere hameka urthekin
ongi doha amarekin;
begiak ditu amak bezala—
—zeru zola bezain urdin;
oraiko itchurarekin
uste dut demborarekin
andre on bat dion egin.

Nere emazte Maria
ez da andre bat handia,
bainan emazte garbia;
musu batentzat etchean badut—
—nik nahi dudan guzia;
galdegiten dut grazia
dudan bezela hasia
akhabatzeko bizia.



ZUBIETA.—Célebre casería «Aizpúrua».